

Karkara

karkara.eus

 Orioko eta Aiako aldizkaria · 2015eko ekainaren 26a · 363. zenbakia. 26. urtea



Alkate-makila eskuz aldatu da

Hauteskundeetan bozkatuena izan zen alderdiak hartu du Udalaren gidaritza Aian eta Orion, EAJko Arrizabalaga eta Zalduak.

12

Elkarrizketa
Urtzi Garmendia

16

Erreportajea
Negozioen itxiera

20

Argazkiak
Kinto bazkariak

35

Kritika
Harribilek 20 urte

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidalak S.L.



Autobus litera eta
 16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
 Bidalatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

BODEGAS
Gailur

ZUDUGARAI



Gabinete Traditio

Tel: 943 13 05 00
 Fax: 943 13 02 00
 www.zudugarai.com

azkue



Tf: 943 130 438

azkue

arkaitz taberna
 orio

- Ogitaratekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta

Terraza ederrarekin
 Gero ezin hobea

abeslari kalea 6 - 943 831 657

Orioko Herri Ikastola



Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net

Kinikadenda - Uma arropa

argine

www.lesoniel.com/argine
 Tel: 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
 UGARIEI TXARTELAREKIN

ARISTERRAZU
 jatetxea



Andatza auzoa AIA
 Tel. 943 83 45 21

TUPI-TAPA, TUPI-TAPA, KAIUARA
 BOKATA EUERRAK JATEGA



KAIUARA

Andatza auzoa 35, beheko
 Tel: 943 840 080

Maidor Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
 Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
 Tel. 943 575 361

oinarri
 PODOLOGIA ZENTROA

gizarte kutxa



INDO
 Garraio frigorifikoa
 NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Ubegun industriagune, 4
 Tel. 943 894 024
 Fax. 943 130 144
 20809 AIA - ORIO



363

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea

20810 Orio

943 83 15 27

karkara@karkara.com

www.karkara.com

EditoreaKarkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasalzuze

Erredaktore burua

Miriam Garcia

Erredakzio taldeaOnintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Iñigo Exposito,
Jon Garate,
Iñaki Iturain,
Idurre Lizarralde,
Elizabete Manterola
eta Rikardo Uzquidun**Publizitatea**

Idurre Telleria

Ale honetako**kolaboratzaileak**Egoitz Eizagirre,
Manu Etxeberria
Ana G. de Txabarri,
Eli Huegun,
Xabi Ibarburen,
Ion Lertxundi,
Ibai Peña**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaleakRodolfo Jimenez eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzuz-
kizunik. KARKARAN argitaratu-
takoa berreman daiteke,
osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

TOKIKOM

LAGUNTZAILEAK

Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jaurlaritzaren
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

Egoitz Eizagirre Gipuzkoa Bertsotan lehiaketako saio batean. BERTSOZALE ELKARTEA

HASI BERTSOTAN

EGOITZ EIZAGIRRE (DOINUA: NOLABAIT DENOK LOTU NAHI DEGU)

Azken gutuna

1

Bi mila ta bia izango zen
oroitzea(r)i nola utzi,
Lizardirako listo nengoen
zer nahi nuen erakutsi.
Ta paper baten hala eman zidan:
Hi izango haiz nagusi,
hik behar dituk danak hautsi
ez baitek balio gutxi!
kantatu nuen ta oso gaizki,
ibili nintzen itsusi;
ta okerrera bera ez dedala
geroztik gehi(ag)o ikusi.

2

Baina gaur ere niri begira
hor egongo da ortzean,
bere indarra ailegatzen zait
pentsatuta hotz-hotzean.
Laguna nuen ta laguna dut
beti gau ta bihotzean,
ta gaur zeozer lortzean,
hiru esaldi lotzean,
berdin berdina zait luzean jardun
edo ta jardun motzean
beti karta bat idazten diot
nire bertso bakoitzean.

Publizitatea kontratatzeko:

Karkara

688 859 682 (Idurre)

publizitatea@karkara.com



karkara.eus

Orioko Herri Ikastolari

Urte mordo egin ditut Orioko Herri Ikastolako guraso izaten. Umeak hazi egin dira eta bukatu zaigu etapa hori; beste bide batetik jarraituko dute orain. Atzera begiratuta, ikastolari eskerrak eman nahi nizkioke, gurekin izan duten adeitasunarengatik.

Eskerrik asko.

■ **Atorrasagasti-Aizpurua familia**

Eskerrik asko Orioko herriari

Orioko EAJ-PNVetik eskerrak eman oriotar guztioi hauteskundeetan emandako babesagatik. Eskerrak eman bozkatu digun pertsona orori, ziur gaude emandako botoak oriotarren bizi kalitatea hobetzeko balio izango duela. Bereziki bozkatu ez diguten pertsona horiei aipamena egin nahi diegu eta argi esan, lau urtez lana egingo dugula euren konfiantza irabazteko.

Azkenik esan, oriotarrak udalerriko gestioaren parte nahi ditugula, inplikatzeari. Animatu guri ekarpenak egitera eta oriotarrei gogorarazi udaletxeko atearak zabalik daudela guztiontzat.

Mila esker denoi. ■ **Orioko EAJ-PNV**

Mila esker

Orioko Herri Ikastolako LH3ko gurasook eskertu nahi dugu LOMCEren baitako azterketen harira herriko hezkuntza-komunitate, eragile eta norbanakoengandik jaso dugun babes eta atxikimendua. Zuen berotasunak indarberritu egin gaitu! Mila esker guztioi. ■ **Orioko Ikastolako LH3ko gurasoak**

Eredugarria

Ez zitzaidan aintzat pasa igandean, Ikastolako jaialdian, Zaraguetako zuzendari Juanjo Zubizarreta bere parte hartzearen ondoren, kiroldegian bertan gelditzea eta jaialdia ikustea. Nahiko nuke herri honetako jende askok, Xubik izan zuen jarrera erakustea eta

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARA bere egiten du eskutiaz laburtzeko eskubidea.

hemendik aurrera, ondokoaren zoritxarra desio dutenak beren jarrera aldatzea eta aukera ezberdinak errespetatzea. Eskerrik asko Xubi! ■ **Naiara Fernandez Elgorriaga**

Eskerrik asko, Harribil!

Ekainaren 5a egun ahaztezin horietakoa izan zen Harribil osatzen dugun familia guztiarentzat, 20 urte ez baitira urtero ospatzen eta aitzakia eder hark horrelako ospakizuna prestatzeko merezi izan zuen: urte sorta hauetan dantzan aritu garenon artean emanaldi xumea egin genuen, dantza tradizionala eta tradizionalan oinarritutako koreografiak uztartuz.

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiegu hara hurbildu zinetenei. Oinak dantzan hasi orduko sentitu genuen gertutasun eta berotasunak, berehala uxatu baitzituen ordura arteko urduritasunak.

Esan beharra dago, dantzari bakoitza bere aletxoak jartzen saiatu ginela emanaldia berezia izan zedin. Hala eta guztiz ere, inor gutxietsi gabe, aipamen berezia egin nahi diegu Harribileko ki-deei, eta batez ere Mireia eta Iosuri, eraman duzuen lan zama ez baita makala izan, hori guztia aurrera eta bere fruitua eman zezan.

Hori guztia oroimen batean bakarrik

gera ez dadin, ea berriz ere epe labur batean elkartzeko aukera dugun.

Eta bukatzeko, ze demontre gero, harro esan dezakegu: bejon deigula denoi eta aupa Harribil! ■ **Harribil, 20 urte ekitaldiko dantzariak**

Euskaraz nahi... eta ezin!

Orioko euskaltegiko taldea gara eta idatzi honen bitartez gure ikaskide bati gertatutakoa azaldu nahi dugu; labur-labur eta motzean, inor mindu gabe eta inorekin haserretu gabe.

Duela aste batzuk, gure herrian, Orioko Arraun Elkarteak antolatuta garagardo azoka izan genuen; hori dela eta, beste zenbait herritar bezala, gure lagun hau plazara hurbildu zen bertako giroaz gozatzera. Gure ikaskideak, egunero egin ohi duen bezala, naturaltasun guztiz, euskaraz zuzendu zen lanean zeudenengana, baina jasotako erantzuna ez zen esperotakoa izan.

Nahiz eta gure ikaskideak behin eta berriz aurrean zeukan euskaldunari euskaraz egin, hark erdaraz erantzuten zion etengabe.... Zergatik gertatzen da hau?

Gure aldetik egoera hau salatu nahi dugu; izan ere, jarrera horiek gure hizkuntzari ez diote inongo mesederik egiten, are gehiago, euskara ikasten eta hobetzen ari garenekiko errespetu falta da. Era berean, egiten dugun esfortzua aintzakotzat hartzea eskatzen dugu, baina ez dugu inork gu txalotzerik nahi. Euskaldunak garenon eta euskara ikasten ari garenon arteko harremanak normaltasunez bizi nahi ditugu, errespetuz elkarrekin ikas dezakegu. Honenbestez, horrelakorik berriz ez gertatzea espero dugu.

Euskahaldunak garelako, euskaraz bizi nahi dugu! ■ **Orioko euskaltegiko irakasle eta ikasleak**

On egin!

Ekainaren 14an, igandearekin, Orioko Herri Ikastolak urtero antolatzen duen ikasturte amaierako jaiak ospatu

zigun.

Aurtengoak bikaintasunaren mugak gainditu ditu eta ohi bezala—zein erraz ohitzen garen gauza onetara—diseinua, koloreak, formak, erritmoak, musikak, inplikazioak eta konplizitateak nahastuz menu dotorea eskaini ziguten.

Gainera helduen esperientzi eskola-koek ondo merezitako diplomak jaso zituzten eta gertaera hori primeran zartatu zen adin desberdinetako ikasleak nahas-mahasean, jolasean eta ezaguerak elkartrukatzeko josi ziguten ikuskitunarekin.

Bejondeiola Orioko Herri Ikastolari eta urte askotarako! ■ **B.G.**

Orioko Udal gobernua osaketa

2015eko ekainaren 13an aukeratu zen Orioko Udaleko alkate berria eta prentsan ondorengo adierazpenak argita-

ratu ziren:

Debemos olvidar la gran política, tenemos que trabajar juntos por nuestros vecinos izan zen PSEko zinegotzi berria den Ana Priedek esandakoa—DV 2015-06-14—.

Beste indar politikoeekin elkarlanean aritzeko galderari hau adierazi zuen EAJko alkate berriak: *la idea es trabajar juntos, sabiendo además que en los programas electorales de cada uno no hay tantas diferencias*—DV 2015-06-14—.

Gure harridura esandakoetatik izandakoetarako saltoan dator. Aste honetan udaletxean lanean gabiltzala langileekin, elkarrizketa batean nahigabe arduradun berrien izenak ateratzen dira, eta baita PSOE oraingoz ez dela sartuko eta aurrerago sartzeko ez duela alboratzen Harrituta geratzen gara: Teknikariek beste alderdiek baino lehen arduradunak ezagutzea. Hori ez da horrela izaten. Hau berresteko zuze-

nean alkatearengana joan ginen eta horrela zela esan zigun.

Beraz, alkateak konfirmatzen digu EAJ zinegotzien artean banatu dituztela ardura guztiak eta ORAIN eta BILDU kanpoan gelditzen direla aukerarik eman gabe, hitz egiteko aukerarik ere izan gabe.

2011n beraiek udal gobernuan egoteko gonbidapena jaso zuten baina kanpoan gelditzea erabaki zuten eta orain ere beraiek erabakitzen dute BILDU eta ORAIN baztertzea gonbidapenik luzatu gabe. EAJko 1.133 eta PSEko 236 boto ordezkatuak udal gobernuan. Bestalde, EH BILDUKo 890 boto eta ORAINeko 433 boto kanpoan. 46 boto-ko aldea. ■ **Orain plataforma**

Kultur etxearen egutegia

Ekainaren 22tik irailaren 7ra arte 9:00etatik 13:00etara egongo da irekita. Abuztuan itxita egongo da. ■ **K.E.**

ZORIONAK!

Kintotako otorduen antolatzaileei

Urteak joan, erraz joaten dira. Gazte izatetik heldu izatera konturatzerako pasatzengara, eta heldu izatetik edadetu izatera ere uste baino lehenago. Are azkarrago joaten dira azken urteotako bizitza erritmo zoro honi erreparatzen badiogu. Lanak eta familiak betetzen dituzte gure ordurik gehienak, guretzako tarte bat hartzeko betarik gabe kasik.

Eta halako batean, norbaitek, kintotako afaria antolatzen du. Kartelak jarri, abisua pasa, watsapp bidali, jate-txera deitu... eta halako batean, mahai bueltan, lagun zaharrak dituzu inguruan, eta kontu zaharrak. Barre pila bate egin, eta ordu batzuen buruan etxeratzen zara, hurrengo urtean nork antolatuko duen pentsatzen.

Bizitza honetan, normalean elkar-tzen ez diren lagunak elkartzeko gogoia eta kemenajartzen dutenei, beraz, gure Zorionak. Segi holaxe urte askuan.

JAIOTAKOAK

- Malick Camara Aranceta, Orion, ekainaren 2an.
- Anuska San Sebastian Vitoria, Orion, ekainaren 10ean.

EZKONDUTAKOAK

- Jose Angel Martin Otero eta Safae Morsli, Orion, maiatzaren 19an.
- Mohamed Mehdaoui eta Wiame Matour Haski, Orion, ekainaren 9an.
- Ainhua Urkizu Jauregi eta Mikel Heras Perez, Orion, ekainaren 13an.
- M^a Del Coro Elizondo Embil eta Juan Antonio Zapiain Olaetxea, Orion, ekainaren 19an.

HILDAKOAK

- Matilde Sarasua Iburguren, Orion, ekainaren 4an, 54 urterekin.
- Esther Iburguren Arrillaga, Aian, ekainaren 5ean, 74 urterekin.
- Luis Atxega Orbegozo, Orion, ekainaren 16an, 89 urterekin.
- Ignazio Zuloaga Azkue, Aian, ekainaren 18an, 86 urterekin.
- Dionisia Idarreta Zumeta, Aian, ekainaren 20an, 79 urterekin.

Laguntzaileei oharra:

Laguntzaile kuota uztailean kobratuko zaizue. Eskerrik asko zuen babesagatik!

Eskela edo urteurreneko gogoan-garria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27



Malen Moran taldekideekin aldageletan igoera ospatzen . MALEN MORAN



Elkarretaratzea egin zuten Ikastola aurreko plazan. KARKARA



Zumeta eta Gaiton curriculumaren aurkezpenean . KARKARA

Gurea erreferente izan dadin

“Aurrera doan legea gelditu nahian dabilta Orioko Herri Ikastolako LH 3ko gurasoak. LOMCEri planto egin zien”

Futbolariak, haur askorentzat, erreferente dira. Elastiko gorri-urdinak atzean idoloen izenekin harro jartzen dute haur –eta ez hain haur– askok. Ikastetxeetako jolastokiek futbol taldeen moda desfile dirudite.

Orion, ordea, lehen lerroan dauden futbolariak, titularretan agertzen direnak, ez dira parkean haurren elastikoetan agertzen direnak. Emakumezkoak dira. Eta are gehiago orain, Oiartzungo taldea Emakumezkoen Lehen Mailara igo denean, hango jokalaria baita Malen Moran oriotarra.

Titular askotan agertu dena Aian bizi den donostiarra da, Eneko Goia, Donostiako alkate izendatu baitute. Politikan pixkanaka-pixkanaka aurrera doana Ainhoa Usandizaga da, batzarkidea izango baita.

Aurrera doan legea gelditu nahian dabilta Orioko Herri Ikastolako LH 3ko gurasoak. LOMCEri planto egin zieten. Ikasgelak hustu eta Ikastola aurreko plazan batu ziren; gurasoak ez ezik, norbanakoak eta eragileak.

Erreforma honen aurkakotasunean jaio zen Orioko Curriculumum Sortzen taldea, eta jada amaitu dute sortze prozesua. Ekainaren 12an aurkeztu zuten jendaurrean curriculumean bildutako, irudiak eta hitzak uztartu zituen aurkezpen arin batean.

Oinak arin-arin mugitzen zituzten Harribil dantza taldeko dantzariak eta dantzari-ohiek. Iragana eta oraina batu ziren, taldearen hogeigarren urteurrena ospatzeko. Oholtzan eta mahaiaren bueltan, jan/edanaren konpainian, egin zuten topa beste horrenbeste izan daitezten.

Topa egiteko garaia orain heldu da, iritsi baitira herriko festak. Altza kopak eta aupa sanpedroak.

Hondartzara joateko zer garraio erabiltzen duzue?



“Hondartzara kuadrillan joaten dira umeak”

Konponketak udaran gehiago izaten dira, umeenak zein helduenak, hondartzara joateko eta aisialdirako erabiltzen baitituzte. Oporretara joan aurretik prestatzen dituzte bizikletak.

Hondartzara joateko txu-txu trenak asko laguntzen die askori, baina beste asko bizikletaz joaten dira. Betidanik egon da umeak hondartzara bizikletaz joateko ohitura, kuadrillan elkartuta joaten dira.

Normalean paseoko bizikletak erosten dituzte helduek. 12 urte inguruko neskek, askotan, paseokoak ere bai; eta, gazteagoek *mountain* bike estilokoa.

Mikel Lertxundi

Dendaria



“Udaran ohitura handia daukat bizikletaz joateko”

La egunero ibiltzen naiz bizikletan. Normalean, Txankaraino joaten naiz errio ondotik, han buelta eman eta hondartzaraino joaten naiz. Ibilbide hori maiz egiten dut, ia egunero, ahal dudan guztietan.

Udaran ohitura handia daukat hondartzara bizikletaz joateko, baita neguan ere, eguraldi txarra egiten ez badu, bizikletaz ibiltzen naiz. Hau da, ona egiten duen guztietan aprobetxatzen saiatzen naiz.

Hondartzan, gainera, aparkatzeko arazorik ez dago bizikletaz joanez gero. Bizikletak uzteko tokiak daudenez, primerako aukera da. Ez da arazorik egoten.

Mari Jose Gonzalez

Jubilatua



“Nahiago dut bizikletaz joan, gustatzen zait”

Garajetik bizikleta hartuta joaten gara hondartzara. Oinez joan baino, nahiago dut bizikletaz joan, gustatzen zait.

Txu-txu trenean ere joan naiz noiz-bait, baina gutxitan; normalean bizikletaz joaten naiz beti.

Nire bizikletak ez du konponketarik behar, Jaunartzean oparitu baitzidaten eta berri-berria baitaukat. Baina, lehengo egunean, gurpil puzgailua erosi genuen.

Askok gustatzen zait Jaunartzean oparitu zidaten bizikleta, mendikoa da, baina ez naiz sekula mendira bizikletaz joan. Hondartzara aldiz ia beti bizikletaz joaten gara.

Eñaut Bravo

Ikaslea



Orioko elkarte hasieran ere eredu

Antonio Campos, lehen presidentea, Iñaki Agote, Benedicto Etxeberria, Juan Luis Amilibia, Luxiano Manterola, Estanis Sarasua, Juanito Altxerri, eta abar aipatuko genuke CRO Oriok elkartearen sorreran. Hala ere, abentura haren hasieran benetako bultzatzailea Patxi Sarasua izan zen.

TESTUA: MANU ETXEBERRIA

ARGAZKIAK: KUTXA FOTOTEKA

Hogeita hamar urte aurrerago joanda ulertu dezakegu hain berritzaile eta iraultzaile izan zen gure elkartearen sorrera. 1936ko Joko Olinpikoetara skiffean joateko prestaketan ibili zen Inaxio Sarasua, eta orduan jarri zuen hazia. Haren semeak, Patxik, hiru hamarkada pasa eta gero, ekimen hari bultzada berria eman zion, eta elkarte gogo eta ilusioz gainezka antolatzeari ekin zion.

1964an, ideia hura buruan zebilkiela joan zen Patxi lagun handia eta *Zarauzko Club Deportivo* taldeko presidentea zen Emilio Olazabalengana jo zuen, haien elkarteko estatutuak behar zituela esanez. Lehen harria jarrita zegoen. Ondoren, ideia berrietarako prest zegoen gazte-talde bat bildu eta, hilabete batzuk igarota, 1965ean, ekainaren 19an zehazki, sortu zen *Club de Remo Olímpico de Oriok* izena hartu zuen elkarte. Aitaren antzera, Patxi 1964an Donostiako Ur-kirolak taldean skiffean ibilia zen.

1960ko hamarkadako urteak, euskal arraunketarentzat giltzarri izan ziren, lehenago eta gero nabarmenekoak izan baitziren. Orduantxe sortu ziren trainerillen lehiaketa ofizialak, baina traineruak, oraindik ere, aspaldiko lege eta ohiturei jarraitzen zien. Oriotarrek hala behar zuela erakutsita, alboan utzi ziren estropada aurreko kiloko txuleta haiek; horgei minutuko entrenamenduak – estropadak irauten zutena hori zela ikusita – hasi eta jota jo egindako entrenamendusaioak, beroketarik gabe; tostako ontziak eramateko kamioia erremolkeak ordezkatu zuen; arraun trinkoak, egur-zati batekoen ordezkari, mugikorrean erabiltzen ziren antzera, zatika eta arinagoak egiten hasi ziren; tostak eta toleteak ontzian il-tzez lotzea ere historiara pasa zen*.

Oriok, abangoardian, modernitatea ekarri zuen

Orioko taldea sortu eta gutxira beste hainbat agertzen ziren euskal arraunaren baitan. Esate baterako, 1966an Pasai Donibaneko Koxtape sortu zen; 1968an Santurtziko Itsasoko Ama; eta 1969an, Donostiako Arraun Lagunak. Dena dela, haien artean, oriotarrak izan ziren, aurreko atalean adierazi bezala, txalupara pasa eta arrakasta lortu zutenak.

Oriok, berriro ere, abangoardian zebilen. Eta halaxe onartu zuten garaiko arraunzale eta adituek. Kantauri osoan izan zuen oihartzuna Altxola traineru mitikoaren ibilbideak. Oriotarrei esker urte haietan arraunaren munduak asko irabazi zuela onartzen zuten nonahi. Espainiako txapeldun izan zen Pedreñako zuzendaritzako kide batek hala zioen*



Patxi Sarasua 1966an estatuko txapelduna izan zen. KUTXA FOTOTEKA

50 URTE OLATU GAINEAN: 1965-1968

La Voz egunkarian: *ORIO, UN EJEMPLO A SEGUIR. José Luis Carral, de Pedreña: Del clamoroso triunfo de la tripulación oriotarra tenemos que sacar alguna positiva consecuencia. La de Orio es una preparación extraordinaria. Quedan olvidados aquellos secretillos que cada patrón guardaba celosamente. Ahora en Orio todo es claridad; todos saben lo que hacen y por qué lo hacen. Hacen partícipes a los demás de sus experiencias y conocimientos. Ha cambiado la mentalidad. Valga esta anécdota: con el dinero de una regata han comprado una cámara y un proyector; de esta manera filmaron y luego vieron sus actuaciones (...) Orio es hoy en día, y lo dice un pedreño, es como un catedrático solicitado por todas las universidades para que explique sus saberes.*



Orioko gazteek gauzatu zuten iraultza euskal arraunean. KUTXA FOTOTEKA

Kontxan, oriotarren erakustaldia, ikusgarria

Inork ez zuen espero aurreneko urteetan elkarre berriak horrelako bilakaera izango zuenik. Izan ere, bi urteren buruan, 1967an Estatuko txapelketa zortzikoan irabazteko hautagaiak ziren oriotarrak. Ez zuten txapelketa jokatzetik izan, egun batzuk lehenago ez zutelako jokatu nahi izan Gipuzkoako txapelketa San Pedroko festetan antolatuta zutelako. Baina, hurrengo urtean, 1968an, aise nagusitu ziren Espainiko txapelketan, besteak beste. Halaxe egin zuten hurrengo bi urteetan, 1969 eta 1970ean. Azken honetan, 1970an, udara iritsita, eta arraunketa olinpikoak eskatzen zuen dirua lortzeko asmoarekin, trainerutan ematen ziren diru-sariak eskuratzeko traineru estropadetan parte hartzea erabaki zuten.

*Outtrigger*reko denboraldia bukatuta, txalupa uretaratzeko garaia iritsi zen. Kontxa aurretik jokatutako estropada batean Oriok atera zuen traineru berezia, Altxola, omen zen zaltetuen ustez garaipenaren arrazoia. Kolorea ere berezia zuen: barniz kolorea. Artean, traineru guztiak beltzak izaten ziren. Itxura ere, beraz, iraultzailea.

Hala ere, Donostiako badian ohitura zen moduan, kuadrilla guztiak antolatzaileek jarritako traineru beltz astunak erabili zituzten.

Honenbestez, arraunzale guztiak aho-zabalik utzi zituzten oriotarrak, lehenbiziko igandean, aurreko urtean txapel-duna izan zen Lasarte-Michelineko traineruari 45 segundo alde atera ziotenean. Euskal arraunketaren aro moderno martxan zegoen; eta oriotarrak, azken 50 urte hauetan sarritan, gorabeherak gorabehera, gertatu den moduan, punta-puntan, nagusi ziren.



Ana G. de Txabarri

LOMCErik ez

Gure curriculumuma da, eskolaren egitekoa zein den denon artean aukeratu dugulako eta nolako eskola nahi dugun erabaki.

skola frankistan ikasi nuen nik, txikitik, zueta-ko askok bezala. Ikasteko buru ona eta azkarra izanda, lana antolatzen abila... sistemara ongi moldatu eta aurrera egiten zuten gutxi batzuk: bidean, ordea, ikasle mordoak geratzen zen ikasteko aukerarik gabe oso gazte. Agintekeriaren eta hierarkiaren alde egiten zuen gizartearen ispilu zen eskola hura, lehiazale eta elitista, eta bizkorrenari bakarrik ematen zion gora egiteko aukera.

Ikaslea moldatu behar zen eskolara, orduan; orain, ordea, ikaslea du ardatz eskolak eta haren zerbitzura jartzen saiatzen da. Eskolaren egiteko nagusia ikasleari bere bidea egiten erakustea da, gaur egun, horretarako, bakoitzaren behar eta erritmoetara egokituz, ikasleari dituen mugak gainditzen laguntzen dio. Lehengoa ez bezalakoa nahi dugulako gizartea, oso bestelako balioak behar ditu eskolak ere: berdinasunean oinarrituta, askotakoa izan eta guztientzat zabalik dagoena, elkartasun eta lagun giroa bultzatuko duena, errespetoa... Aian eta Orion, bi eskola publikoak, Lardizabal eta Zaragueta, Ikastola eta Kimabe elkarteak sortutako Zingirako eskola, bakoitza bere ezaugarriekin, horren eredu dira.

Kezka eta nahi horien ondorio da Orioko Curriculumuma ere. Munduan kokatzeko, mundua ulertzeko eta mundu hori interpretatzeko, bizitzan autonomiaz moldatzeko ikasleak zein tresnak eta baliabideak behar dituen zehazteko ahalegina egin da; etxetik abiatuta, gainera: Oriotik, Euskal Herri-tik, euskaratik... Gure curriculumuma da, eskolaren egitekoa zein den denon artean aukeratu dugulako eta nolako eskola nahi dugun erabaki.

Goitik datorkigunak, berdin da LOMCE izena edo Heziberrijartzen badiote ere, antza handiago du txikitako eskola eredu zaharkitu harekin egin nahi dugunarekin baino.

30€

Arkupeko dendetan gastatzeko

Ekaineko sarituak

Ainhoa Mateos Oleden

Izarra bideoak

Amaia Urkola Goenaga

Argi gaiak



Elkarlana



Ion Lertxundi

Beste izenburu bat jartzeko idea nuen, auzolana edo herrilana, baina azkenaldian ikusita horien erabilerak eta ez eginak, iruditzen zait ez ote diren *gastatu* edo gutxietsi. Niri, egia esan, oso ondo iruditzen zait elkarlanean ekitaldiak antolatu eta egitea, partaidetasuna, besteekiko ardura, eta beste hainbat balore jorratzen direlako. Berekoieria hutsez begiratuta ere, nire ustez onurak dakartzala pentsatzen dut.

Hala ere, bi alderdi nabarmendu nahi ditut.

Alde batetik, gure politikariek azken aldian beren kudeaketan auzolana asko nabarmentzen dute, horrekin parte hartzea bultzatzeko asmoz edo. Ondo iruditzen zait hori bultzatzea, kudeaketan partehartzeko aukera ematen zaiolako herriari. Baina, kudeaketarako aukera eman zaienez eta horretarako bozkatuak izan direnez, ez al dute berak ardura gehiena ekintzak antolatzeke? Jende xehea auzolanean lana eginez, ez al dute jende hori lan-esku merkea moduan erabiltzen? Edozein lanerako edonor izan behar al da lana egingo duena? Badakit oso marra estua dela batetik bestera erabakitzen duena, baina kontutan hartu beharrekoa dela uste dut. Eta, gainera, oso ondo dago politikoek jendeari auzolanerako gonbita egitea; baina, noiz hasi behar dira beren artean egiazko elkarlana egiten, beti elkarri mokoka ibili beharrean?

Beste aldetik berriz, herritarrek gaude. Bai ondo dago gure administrazioen kudeatzaileei ardurak eskatzea. Baina non dago gure herriarekiko ardura? Beren eskuetan bakarrik uzten dugu eta gero kexatu? Eta non gaude gu ekitaldietan? Begira, ikusle hutsak moduan, telebista ikusten ari garen bezala? *Ai ze ondo egiten duen dantzana... Begira, ze ondo antolatu duten arraun estropada... Bua, hau festa txarrrak, kontzertu txarrrak, ez dago ezer... Ze mierda dagoen ez? Plaza eta zelaiak zikin, zikin...* Aukera ugari ditugu gure herrietan, ez ditzagun pasatzen utzi.



Lore Berasaluze

Nahi dudalako behar dut

Benetik daukagu. Gerra garaia biziaren ezin uxaturik, *Goserik pasa gabekoak zarete!* esan izan digute askotan.

Edo *Txatxuolioa, muzin egingo genitxonan ba guk platerekoari!* *Jantzan hori gero!* ere bai tarteka. Eta erdizka bada ere, egia izan.

Beste buelta bat ere badu gainera egoerak: denetik izan duenak nola erakutsiko dio ondorengoari gutxierekin konformatzen? Buruari hazka eginda ere ez zaizkit ideia asko etortzen niri behinik behin. *Ama, hau nahi dut. Eta ezetz esandakoan, ba, beste hori orduan ama, azkenaldian ez didazu eta ezer erosten.*

Gauzak ahalik eta argien azaltzearen aldekoa naiz ni –saiakera egin behar ba gutxienez-, baina aitortzen hasita, zer erantzun ez dakidala geratu izan naiz maiz etxeko txikien galderen aurrean. Etiketik abiatuta, gehiegi izatean duguna ez estimatzera kondenatuta gaudela eta neurrian izateak, aldiz, gutzientzako adina egotea ekar dezakeela esaten diet. Matematika alorrera pasatzen banaiz, soldata batekin osatutako ekuazioak ez duela eskatutako jostailua emaitzat onartzen esan izan diet.

Eta horretan ari naizela, inguruko hipermerkatu baten publizitateak jo eta ma laga nau. *Gehiago nahi duzu beti esaten dio gizonetako emakumezkoari. Jakina ba, etor zaitez –hona– erostera, denetik daukagu eta!* Adio, nire argumentu guztiei. Ezin erantzun horri.

“Gauza batekin gelditu naiz: gorrotoak ez duela ezertarako balio”

Urtzi Garmendia

Digitalak ekoiztetxeko langilea

Sormenetik abiatuta, berrikuntzan fokua jarrita eta aukera berriei atea itxi gabe, era guztietako lanak egiten ditu Urtzi Garmendiak -Orio, 1980-. Azkena, *Pepe Mujika. Iraultza lasaia* dokumentala.

OLATZARTOLA

1997an sortu zuen bere lehenengo ikus-entzunezkoa, etxean zuen ordenagailuan. San Nikolas jaietako Surf Txapelketa bildu zuen bideoan. Afizioz egindako lan horrekin hasi zuen ikus-entzunezko esparruan bidea. Bide emankorra, oparoa.

Pepe Mujika. Iraultza lasaia dokumentala egin duzue. Egiari zor, guztion iruditegian gizon lasaia imajinatzen dugu...

Oso gizon patsaratsua eta gertukoa da, bai. Nabari zaio pasarte gogorrek bizi izan dituela eta horrek bizitzari beste ikuspuntu batetik begiratzea ekarri diola. Lasaitasuna transmititzen du.

Gogoan dut grabatzera joan ginen lehen goiza. Etxe ondoran bi polizia zeuden, bere segurtasuna zaintzeko. Bera lasai agertu zen, oinez, urrunetik. Motoan bikote bat gerturatu zitzaion eta 20 minutu eman zituzten hizketan. Gu esperoan. Ondoren, bere etxera gonbidatu eta ordu bete igaro genuen hizketan. Gure atzetik beste hainbat hedabide zeuden zain.

Hedabideetan bizitza xumea daramala dirudi.

Errealitatean ere horrela da. Baserri -Chacra Uruguain- xume batean bizi da. Ez du luxurik, beharrezkoak besterik ez. Berak eta emazteak behin eta berriz esan ziguten ez zutela gehiago behar pozik bizitzeko.

Denbora luzea eman al zenuten berarekin Uruguain?

Agenda hitzorduz lepo zeukanen, ez genuen denbora handirik izan berarekin egoteko. Euskal Herrira etorri denean, ordea, bi egun igaro ditugu berarekin.

Zer egin zenuten Euskal Herrian?

Lehendabizi Astigarretako Muxika baserrian izan ginen, bere birraitona handik abiatu omen zen Uruguaira. Nire birramona ere hangoa zen, hau kasualitatea!

Hondarrribian ere izan ginen. Umoretsu zebilen, hilerrira iritsi ginen arte. Jose Vergamin, Peperen irakasle izandakoa, han baitago lurperatuta.

Oso pertsona sentibera da, baina, behar denean, jenio bizia du. Hunkituta zegoela grabatu genionean, esaterako, haserretu egin zen. Grabatzez uzteko eskatu zigun. Pentsatzen duen guztia esaten du, pertsona zuzena da.

Berakin egotea ikasgai handia izan al da?

Momentu oro zerbait ikasten da berarekin, baina, ni, gauza batekin gelditu nintzen: gorrotoak ez duela ezertarako ere balio.

Berakurte mordoa eman zituen kartzelan, kondizio latzetan. Uruguain amnistiaren aldeko bozkak irabazi ostean utzi zituzten libre. Borroka armatua bertan behera uztea erabaki zuten, demokraziaren alde. Zaila egiten zait irudikatzea, baina berak ez dio gorrotorik urtetan bizitza kendu zion horri.

Honela esan zigun: *Bizitzan bi indar nagusi daude, maitasuna eta gorrotoa. Biakitsuak dira. Gorrotoa erabateko iluntasuna da, eta ez du uzten ikusten. Maitasunak ere ez du ikusten uzten, baina, behintzat, bizitzen uzten du.*



Urtzi Garmendia eta beste hainbat lagun Pepe Mujika eta bere emaztearekin, Hondarribin. URTZI GARMENDIA

DOKUMENTALA IKUSGAI



Nahieranen. ETB2n emititu zuten eta audientzia ona izan zuen. Hobetzekoak hobetzeko, gustura dago emaitzarekin oriotarra. Orain, zinemaldirako, bertsio luzeagoa prestatzen ari dira.

Bere emaztea ere ezagutu zenuten?

Bai. Antzekoak dira oso. Luciak aipatu zigun Pepe borroka garaian ezagutu zuela, eta aitortu zigun, sekula ez zela maite-minduko borroka hartan ez zegoen pertsona batez.

Beste uruguitarren batekin egoteko aukera izan zenuten?

Batzu-batzuk elkarrizketatu genituen. Pepe oso pertsona maitatua da han. Zaila da berari buruzko iritzi txarren bat entzutea.

Berak esaten al zuen zerbait txarra Euskal Herriari buruz?

Euskal nazionalismoa oso kausa noblea dela uste du. Kritika egin zion borroka armatuari eta armak bertan behera uzteko erabakia goraipatu zuen.

Euskal Herriarekiko maitasuna duela dirudi.

Bere arbasoak bizi ziren toki berean egoteak zerbait piztu zion barruan. Txundituta agertu zen hemengo mendi, zelai eta paisaiekin. *Nire arbasoak oso gaizki pasa behar izan zuten horrelako toki zoragarri batetik joateko*, esaten zuen.

Zer nolako esperientzia izan da zuretzat?

Izugarrizkoa. Han bizitako hamar egunak ahaztezinak izan dira. Jende interesgarria ezagutu dugu, besteak beste, Peperekin kartzelan egondakoak. Testigantza hunkigarriak entzun ditugu beren ahotik. Gainera, Buenos Aires ezagutzeko aukera izan genuen Adolfo Perez Esquivel nobel sari-dunaren eskutik. Zer gehiago eskatu genezake?



Lehengo negozioen azken pausoak

Betiko taberna, burdindegia, okindegia eta zapata denda ziren. Ziren, **urte bukaerarako guztiak itxita** egongo baitira. Loretxuk, Oriogik eta Oditzek burdin hesia jaitsita daukate, Lorek urte bukaeran giltzatuko du atea.

TESTUA: OLATZ ARTOLA

ARGAZKIAK: ORIOGI, LEGIGUREN ETA KARKARA



“Amonak taberna itxi arte lanean jarraituko zuen eta nahiko lan egin du”

ANDER BELDARRAIN

“Burdindegiko saltzailearen ofizioa polita da, oso lan entretenigarria da”

MIGEL BERASALUZE

Eguerdiko txikitoa, hamaiketakorako ogitartekorako ogia, etxeko giltzaren kopia eta oparitzeko oinetakoak. Jaiotzetik ezagutzen dituzte oriotar askok herriko lau negozio: Loretxu, Oriogi, Lore eta Oditz.

Hasten eta hazten ikusten zituzten makina bat oriotarrek, eta, orain, ixten ikusi dituzte. Atean *zabalik* txartela duela 49 urte jarri zuen lehenak, ia duela mende bat erdia. Atzetik jaio ziren gainerakoak, handik hainbat urtera. Guztiek urte berean jarri dute edo jarriko dute *itxita* txartela, aurtun.

Lehen urratsak

Loretxuk duela 49 urte zabaldu zituen atea. Lehenago eraiquina baserria zen, eta 1966an hartu zuen taberna izaera. *Amona, ahizpa eta osaba –pentsatzen dut gurasoak ere bai– hasi ziren tabernarekin eta amona bukaera arte egon da, azaldu du Ander Beldarrainek.*

Loretxuk martxan urteak zeramatzanean, plaza ondoko pasteleriak urteak zeramatzan itxita. Getariarra den Berasaluzek Zarautzen egiten zuen lan, burdindegian, eta hautsa hartzen zegoen lokala begiz jo zuenean, Zarauzko lana utzi eta Oriora etorri zen 1986an, negozio propioa irekitzera. *29 urte bete ditu dendak, Ibon semea jaio zenean ireki genuen. Zeretik hastea ez dela samurra aitortu du Berasaluzek. Hasi era gogorra izan zen, guztiak bezala.*

Iñigo Alkortak ez ditu horrela gogoratzen hasierak. Okin-familiatik dator bera. Gurasoek okindegia zuten. Semea, birbiloba eta hereniloba, okinak guztiak. Tolosan zuten negozioak itota zuenez, hura utzi eta Oriora etorri zen, 1991n. *Hasi ginenean ez genuen apenas konpetentziarik. Dena hazkundera zen, oparoaldia.*

Oditzek ere ez zuen konpetentzia. Herriko lehen zapata denda izan zen. Ez zen zertan Donostiara ala Donostiara joan behar oinetakoak erosteko. Horrek erosotasuna ekarri zien oriotarrei, baita onetako eroak ere.

Pausoka-pausoka, bagoaz aurrera

Loretxun hasieratik etxean bezala sentitu da bezeroa. Negozio familiarra zein heinean, giro familiarra gailentzen zen. *Bezeroak ere familiako kide bilakatu dira denborarekin, gutxion artean familia txiki bat osatzen dugu,* dio Beldarrainek.

Lore Burdindegian, lehen urteak errazak ez izan arren, ondorengo urteak onak izan ziren. Dena den, Zarauzko eta Orioko burdindegien artean alderaketa handia zegoen: *beste gauza bat zen hura, batzuetan arnasa hartzeko denborarik ere ez genuen.* Baina, Orion ere aurrera ateratzea lortu zuen Berasaluzek eta negozioa zuzen bideratu zuen.

Oriogik ere ondo egin zuen lan urte luzez, 1991tik 2007ra, alegia. Erritmo ezinhobean egiten zuten lan: *asko saltzen genuen. Beheko lokalarekin hasi eta goikoa ere erosi genuen, aurretik erretako ogia eskatzen baitziguten, eta hori gordetzeko*



izozkailua behar baigenuen. Behin espazio hori edukita, probetxua ateratzea pentsatu zuten: pasteleria jarri genuen. Pastelero oso ona hasi zen lanean eta pastel asko saltzen genituen.

Berasaluzek ere aitortu du urte onak izan dituztela. Motorra martxan jartzea erraza ez den arren, egoerak buelta ematea lortu zuela eta oso garai onak pasa dituela.

Loretxukoek ere garai eta momentu gogoangarriak pasa dituzte tabernan; bai familia artean, baita bezeroekin ere. Oroitzapen on asko geratu zaizkie, urte hauetan guztietan bizitakoak.

Ofizioa pasio, pasioa ofizio

Lana gogoz egin dute eta urte luzez Loretxun, bereziki amonak eta amak. Amonaren bigarren etxea zen taberna eta amak ere bere lehen pausoak han eman zituen, baita bere seme-alabek ere. *Tabernan hazi izan gara. Garai oso onak pasa ditugu familia giroan.*

Ofizioa niretzat oso polita da, aitortu du Berasaluzek. Dene-tik dagoenez, denetik egiten da; oso entretenigarria da. Hori bai, jendea ibili beharra dago, argitu du. Bezeroekin harreman zuzena izan du, kontaktu zuzena izan du jendearekin. Batzuetan bezeroa produktu jakin baten bila etortzen da, baina ez daki nola izendatu. Asmakizunetan jolastea egokitzen zaigu. Zer nahi duten azaltzen saiatzen dira eta ni asmatzen. Kontaktu hori izatea oso polita dela gaineratu du.

Jende ugari ezagutu dut, gaineratu du Alkortak. Oso garai onak bizi izan zituen Oriogin, urte gogoangarriak. Oroitzen duen ia guztia ona da. Ezer gutxi du txarra esateko. Betidanik izan naiz okina, baina Oriogin bezain ondo ez naiz beste inon egon.

“Pena handia eta mina eman zidan ixteak, eta langilen fin horiek kaleratzeak”

IÑAKI ALKORTA



Guztia ez da zuria, badu beltzetik

Garai zailagoak ere igarotzen dira eta horiek ahaztea ez da erraza. Politikak, esaterako, eragin zuzena izan du negozioan, dio Berasaluzek. Herri honetan bi bando daude eta nik zerikusirik ez dudan kontuengatik negozioa ziprztindu da. Bezeroak galdu ditu. Horrez gain, krisiak ere eragina izan du. Azken urteetan beherakada handia izan da, egoera zaila da, jendeak neurtuta erosten du.

Alkortak gogoan du parrandatik bueltan joaten ziren gazteek zenbat gozo erosten zuten: *eskaileretan esertzen ziren eta hantxe gosaltzen zuten. Zarata mordoa ateratzen zuten, isiltzeko esaten nien. Berak xxxxx –isilik egoteko esanez bezala– egiten hasten ziren, eta are zarata handiagoa ateratzen zuten.* Orain gurasoak dira horietariko asko eta kalean ikusten dituen gaztetako irudia etortzen zaio gogora. Egun gazteek ez dute ohitura hori eta helduek ere ez dute lehen bezain beste erosten, parrandatik bueltan ez da lehen egoten zen giroa egoten. *Hasi nintzenezan estatuan 55 kilo ogi jaten zuen pertsonak urtean, orain 27 kilo.* Tendentziak aldatu dira eta okindegi handiak sartu dira merkatuan. Prezioak kalitateak baino garrantzia handiagoa du, bereziki krisi garaian.

Iaztik zuten Loretxukoek buruan ixtearen ideia. *Amonak taberna itxi arte lanean jarraituko zuten eta dagoeneko 69 urte ditu, nahiko lan egin du,* dio Beldarrainek. *Urte asko dira, bizipen asko, eta horrek zaildu egiten du erabakia hartzea.*

Oditzekoek ere erabakia hartu eta negozioa utzi dute, oinetako denda itxi dute. Orain, moila bazterretik paseoan zabilzala, Oditzeko pertsiara jaitsita ikusiko duzu. Baita Loretxu tabernakoa, Oriogi okindendakoa eta, laster, Lore Burdindegikoa.

AGURTZEA EZ DA SAMURRA

Behartuta batzuek, egoerak bultzatuta. Jubilatzekeo garaia heldu delako beste batzuek, amaiera idatzi nahi izan dutelako. Batera edo bestera, beti jartzen ditu ileak puntan negozio propioan *itxita* txartela betirako jartzeak. Korapiloa eztarrian eta malkoak begietan zituztela esan diote askok agur negozioari, ez baita erraza agur esatea. Itxiera gogoraztean ere hunkitu egin dira hainbat. Ez da erraza ia bizitoki izan dena betirako uztea.

Amailerara arte borrokan, ilusioarekin, aritu da Akorta. *Baina, egoera gero eta makurragoa zen, atzera bueltarik ez nuela ohartu nintzen arte. Pena handia ematen dit, bereziki langileengatik. Oso langile finak nituen, eta horiek kaleratzeak mina handia ematen zidan.*

Ez da samurra ez jabeentzat, ezta herritarrentzat ere. Izan ere, herritar askorentzat elkargune ere izan den taberna itxita egoteak ohitura aldaketa dakar. Loretxu *faltan sumatuko* zutela aitortu zuten bertako bezeroak itxiera bezperatan, han *etxean bezala* sentitzen baitziren.

Beste batzuentzat, ordea, ez da horren zaila izan agur esatea. Lehen egunetik argi zuten Berasaluzek 60 urte betetzen zituenean lana egiteari utziko ziola. 14 urtetatik dabil lanean, hasieran itsasoan eta gero lehorrean. *Orain ez dit pena ematen, baina, tira, nork daki, akaso itxi eta gero pena sentituko dut, zer egin ez dakidala egongo banaiz.* Egitokoren bat bilatuko duela gaineratu du Berasaluzek.



“Badira tabernan ni baina urte gehiago eman dituzten bezeroak”

Ander Beldarrain

Loretxuko tabernaria

Hiru generazio aritu zarete tabernan lanean. Familia osoa.

Negozio familiarra izan da. Betidanik familiakoak egon gara lanean. Tarteka izan dugu familiakoa ez den besteren bat lanean, baina kasu bakanak dira. Normalean, familiarrak izan gara langileak. Horrek giro familiarra egotea ekarri du, jendea etxean bezala sentitzea.

Urtetan, jenerazioz jenerazio, pasatzen joan den haria eteteak pena ematen al dizu?

Nire amona hasiera-hasieratik egon da tabernan, bukaerara arte. Dagoeneko 69 urte ditu, eta badu garaia atsedean hartzeko. Ez bagenu itxiko lanean jarraituko luke. Ama ere betidanik ostalaritzan aritu da lanean, eta taberna oso lotua da, atsedenerako tarte gutxi ematen du. Ez du sekula beretzat denborarik izan. Gaur ala bihar hartu beharreko erabakia zen, eta, kosta zaigun arren, ixtea erabaki dugu.

Kosta zaizuela diozu.

Bereziki amari eta amonari. Pena ematen zien urtez urte pasa den haria eteteak. Horrek barren-kezka eragiten zion. Pena ematen zion eta gaizki sentitzen zen, baina momentua iritsi da.

Herritarrentzat ere itxiera tristea izan da. Maitatuak zarete herrian.

Gu lehen Aian bizi ginen arren, txiki-txikitatik tabernan ibili naiz eta han hazi naiz. Baina, hala ere, badira tabernan ni baina urte gehiago eman dituzten bezeroak.

Horiei pena ematen die, eta normala da, urte luzez tabernara etorri baitira eta beren etxea kentzea bezala baita. Hala ere, ez nuen pentsatzen jendeari horrenbeste eragingo zionik.

Guk Loretxu gisa ezagutzen dugu, baina lehenago Aldapenea zela esan ziguten aurreko Herrian Galdezkan.

Ez nago ziur, baina nire aitonari *Aldape* deitzen ziela uste dut. Hortaz, akaso, lehen horrela izena zuen.

Eta orain, itxiera eta gero, nola aldatu da zuen egunerokoa?

Amonari hasieran mundua gainera egin zitzaion, gogorra egin zitzaion. Baina, orain, lasaigo dago. Bi asteburu daramatza amak, esaterako, libre. Batzuetan gaizki eta guzti sentitzen da, plan bat presarik gabe egin dezakeelako. Nik ere denbora libre daukat orain eta, egia esan, eskertzen da. Dena den, faltan sumatuko dugula uste dut.

■ OSPAKIZUNA



Urte askotarako Amaya

Gure bizitzeko arrazoia duela bi urte jaio zen, uztailaren 4an. Eskerrik asko gu hain zoriontsu egiteagatik. Onena zara! Urtebetetze zoriontsua pasa, zure gurasoen partez.

■ HANDIK ETA HEMENDIK



“Gogor lan egiteko konpromisoa hartzen dut, guztien alkate izatekoa. Errespetuzko bizikidetzaz izatea falta zaigu, eta kontziente naiz, saiakera honetan, gu guztiok eredu izan behar dugula”

Eneko Goia, Donostiako alkatea, Euskal Telebista, ekainaren 13an.

